

### I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

#### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 62/2016 Foru Dekretua, irailaren 20koa, aldatzen duena abenduaren 28ko 77/2012 Foru Dekretua, Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko langileen lan baldintzak (lanaldia, oporrak eta baimenak) arautzen dituenak**

2012ko abuztuaren 1ean Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 24ko 36/2012 Foru Dekretua argitaratu zen ALHAOn, zeinaren bidez onartzen baitzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoarentzat lan egiten dutenen lanaldia aldatzea. Ondoren, 2013ko urtarrilaren 11n, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 28ko 77/2012 Foru Dekretua argitaratu zen ALHAOn, zeinaren bidez onartzen baitzen Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoarentzat lan egiten dutenen lan baldintzak aldatzea.

Irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege-dekretua, aparteko kredituak eta Estatuaren aurrekontuan kreditu osagarriak emateari eta enplegu publikoan eta ekonomia-pizgarrien arloan beste neurri batzuk hartzeari buruzkoa, 2015eko irailaren 12an argitaratu zen BOEn. Abenduaren 1eko 58/2015 eta otsailaren 4ko 7/2016 foru dekretuen bidez neurrien transposizio teknikoak egin da baimenei dagokienez; hortaz, bidezkoa da orain egitea aldaketa hori.

Bat etorri urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren, Enplegatu publikoaren oinarriko estatutuaren Legearen testu bateratua onartzen duenaren, IV. kapituluaren aurreikusitakoarekin -uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, euskal funtzio publikoarenaren, VI. tituluaren xedatutakoarekin lotuta-, bete da legegintzako errege dekretu horrek 37. artikuluan aipatzen duen nahitaezko negoziazioa.

Diputatuen Kontseiluari dagokio foru administrazio honetako langileen lan baldintzak zehaztea eta onartzea, hala xedatzen baitu abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzkoak, 8. artikuluko 17. paragrafoan, urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak, ekonomia jardueren eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoen kudeaketari buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 28ko 77/2012 Foru Dekretuaren, Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko langileen lan baldintzak (lanaldia) onartzen dituenaren, artikuluko bakarreko A idatz zatia. Hona hemen nola idatzita gelditu den:

“A) Lan orduak.

1. Orduetegi mota guztietarako, salbu eta gaueko ordutegirako, lanaldi orokorraren iraupena benetan egindako lanegatik 37 ordu eta erdi izango da astean, urteko konputuan batez beste, eta hori urtean mila sei ehun eta hogeitau ordu lan egitearen beste da.

Gaueko lanaldirako, berriz, urteko lanorduak, modu iraunkorrean, mila berrehun eta laurogeita hamasei ordu izango dira.

Eguneko eta gaueko txandak dituzten langileek ordutegi bien proportziozko aplikazioaren batez bestekotik ateratzen den kopuruaren arabera egokituko dute gehienezko arduraldia.

Aurreko paragrafoan esandakotik kanpo geratzen dira denbora gutxiagorako hartutako langileak; haiei indarrean dagoen legediak horri dagokionez onartzen dituen eskubideak errespetatzen zaizkie.

2. Lanegunean zehar atsedenerako hartzen den denbora tartea ere benetako lanorduen barruan sartzen da, 5 ordu edo gehiagoko lanaldi jarraituetan bakarrik, eta hogeita bost minututik gorakoa ez bada; beraz, beste lanaldi motaren bat dutenak atsedenaldirik gabe geratuko dira.

3. Laneko arropak, materialak eta gainerako lanabesak batu, ordenatu edo gordetzeko beharrezko denbora benetako lan denboratzat jotzen da. Benetako lan kontzeptuaren barruan, eguneko lansaioan sartzen dira, besteak beste, geldialdi arautuak, lekualdaketak, eta lan segurtasuneko arauetatik edo lan antolamendutik bertatik datozen etenaldiak.”

Bigarrena. Foru dekretu honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn geroago argitaratu arren, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 20a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua*

**BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ**